



ASIAN DANCE COVER LEHIAKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. **Mangamore 2025ko Asian Dance Cover Lehiaketa urriaren 12an (igandea) ospatuko da, 17:00etatik aurrera, Zelaieta Zentroko frontoian. Agertokiak 9x6m-ko dimentsioa du gutxi gorabehera.**
- 1.2. **Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa da. 18 urtetik beherakoek aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena izan beharko dute (1. eranskinean dago bete beharreko baimena).**
- 1.3. **25 plaza egongo dira, talde eta bakarlariren artean gehienez 100 pertsona egon daitezkeela kontuan hartuta. 15 plaza taldeentzat izango dira (10 kide gehienez) eta 10 bakarlarientzat.**

Plazak beteta, bi erreserba-zerrenda sortuko dira: bat taldeentzat eta bestea bakarlarientzat, erreserba gisa, talderen bat eta/edo bakarlariren bat erretiratzen bada.

GARRANTZITSUA:

- **Pertsona bera ezin izango da bi kategorietan aurkeztu.**
 - **Bakarlariren kategorian ez dago baimenduta backdancer-ak erabiltzea, ezta emanaldian zehar pertsona bat aldi baterako agertzea ere.**
 - **Taldearen osaera aldatzen bada, antolatzaileei jakinarazi beharko zaio, eta ezin izango da kideen kopurua handitu, baina bai murriztu. Aldaketa hori behin bakarrik egin ahal izango da.**
 - **Parte-hartzaileek ez badute behar adinako aurrerapenez abisatzen beren plaza erreserba zerrendan dagoen norbaiti utzi ahal izateko edo lehiaketaren egunean aurkezten ez direnak lehiaketaren etorkizuneko edizioetan parte hartzeko aukerarik gabe zigortu ahal izango dira.**
 - **Plaza bat libre geratzen denean, talde edo bakarlari batek utzi duelako, itxaron-zerrenden ordenari jarraituz abisatuko da, urriaren 5era arte (igandea barne).**
- 1.4. **Lehiaketak irauten duen bitartean, parte-hartzaile guztiak agertokiaren alde bateko eserleketan banatuko dira (ez frontoiko harmailetan), eta une oro antolatzaileen jarraibideak eta arauak bete beharko dituzte. Horrela, esleitutako lekuetan eserita egon beharko da, adierazitako bideetatik irten eta sartu, eta abar.**
 - 1.5. **Parte-hartzaile guztiek aldagelen eremuan egon beharko dute, gehienez ere 16:30ean, backstage-tik sartuz.**
 - **16:00etatik aurrera aldagelak erabili ahal izango dira eta bertan utzi ahal izango dira ondasunak lehiaketa amaitu arte.**

- 16:45ean parte-hartzaileek antolatzaileek esleitutako eserleketan egon beharko dute.

Ezarritako orduetan ez egotea deskalifikazio-arrazoitzat har daiteke.



<https://goo.gl/maps/KVTXf3wwSgYdUnD98>

2. ABESTIEI ETA KOREOGRAFIEI BURUZ

- 2.1.** Koreografiaren abestiak edo erremixak asiarrak baino ez dira izango (japoniarrak, txinatarrak, korearrak...), eta haien hizkuntza nagusituko da. Guztira, ezin izango da 4:30 minutu baino gehiago iraun, eta gutxienez 2:30 minutu izango dira.
- 2.2.** Artistaren originalak ez diren koreografiak ez dira onartuko, baina 15 segundoko tartea emango da talde edo bakarlari bakoitzak koreografian inprobisatzeko askatasuna izan dezan, eta, horrez gain, 20-30 segundu *intro* edo *break* bat egiteko.
- 2.3.** Parte hartzaileek abestiak errazago hauta ditzaten, abesti eta taldearen izena zerrenda batean erantsiko da, inskripzioak berretsi ahala, taldea edo bakarlaria izendatu gabe.

Remix bat aukeratuz gero, zerrenda horretan erabilitako abestiak agertuko dira, remix batekoak direla adierazi gabe.

Abestien zerrenda: <https://labur.eus/MangamoreSongList2025>

- 2.4.** Armen Araudiari buruzko 137/1993 Errege Dekretuari jarraiki, erabat debekatuta dago partehartzaileek jarduketan suzko armak, metalezkoak eta bestelako objektu sendoak edo imitazioak erakustea, baldin eta beren ezaugarriengatik haien benetako izaera nahas badezakete. Zalantzarik izanez gero, antolatzaileei galdetu behar zaio inskripzioen helbide elektronikoaren bidez.
- 2.5.** Jarduketan zehar, debekatuta dago pertsonen eta esparruaren instalazioen osotasun fisikoa zikintzen, hondatzen edo arriskuan jartzen duten mota guztietako elementuak botatzea (material piroteknikoa eta sukoia, inolako ke-sorgailuak, lurzorua marraz dezaketen gaiak, likidoak, purpurina, konfetiak, lumak, etab.), bai eta agertokitik kanpora objektuak jaurtitzea ere. Ezingo dira erabili sare elektrikora, sorgailura edo bestelako konexioetara konektatutako aparatuak, efektubisualak, soinu-efektuak edo bestelako efektu bereziak sortzeko.

- 2.6. Debekatuta dago agertokitik jendearengana salto egitea, eta ez da onartuko organizazioak desegokitzat edo lizuntzat jotzen duen jokabiderik; kasu horretan, organizazioak beretzat gordeko du egokitzen jotzen dituen neurriak hartzeko eskubidea.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1. Lehiaketan izena ematea doakoa da eta irailaren 16ko (asteartea) 19:00etatik urriaren 5eko (igandea) 19:00etara egin ahal izango da, izena emateko formulario hau betez: <https://labur.eus/MangamoreFormulario2025>

Taldean kasuan, izen-emate bakarria egingo da.

- 3.2. Eskara egitean, parte-hartzaile guztiek honako datu pertsonal hauek ematea onartuko dute:

- **Izen-abizenak eta jaioteguna (kide guztien taldeen kasuan, zerrenda batean zehaztu beharko da)**
- **Email** (taldeen kasuan, bakarria)
- **Telefono-zenbakia** (harremanetan jartzek antolaketa-premiarik izanez gero; taldeetan, harremanetarako telefono bakarria)
- **Parte-hartzaile bakarlarieen kasuan, zer genero eta izenarekin aurkeztua izan nahi den dantzatu aurretik** (nick bat izan daiteke)
- **Taldeetan, taldearen izena**
- **Udalerrria**
- **Zalantzak:** lehiaketa egin aurretik edozein zalantza azaldu eta argitu dadila eskatzen da.

Formularioa behar bezala betetzen bada, banaka edo taldeka izena ematen duen pertsonak erantzunen kopia automatikoa jasoko du erabili duen helbide elektronikoa. Zalantzarik izanez gero, harremanetan jar zaitezke egin den galdetzeko.

Daturen bat aldatu nahi izanez gero, posta elektronikoz egin daitezke aldaketak, urriaren 5era arte (igandea barne).

- 3.3. Online izen-ematea baieztatutzat emateko, antolakuntzak mezu bat bidaliko du emailetik dance@mangamore.net formularioan adierazitako emailera, pertsona bakarlariak edo taldeak plazarik lortu duen edo itxaron zerrendan jarraitzen duen jakinaraziz.

- 3.4. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaileek dance@mangamore.net helbide elektronikora bidali beharko dute audio- eta/edo bideo-fitxategia, urriaren 5an (egun hori barne). Fitxategia mp3 formatuan egon beharko da eta VLC softwarearen azken bertsioan funtzionatu beharko du.

Behin fitxategia bidalita, ezin izango da aldatu aukeratutako abestia edo remix-a; ordura arte, aldatu ahal izango da, aldeztu aurretik antolatzaileei jakinarazita.

Oinarrietan adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidalitako fitxategiak ez dira baliozkoak izango.

- 3.5. 18 urtetik beherako parte-hartzaileei dagokienez, baimena (1. eranskina) bidali behar da dance@mangamore.net helbide elektronikora, aitak, amak edo legezko tutoreak bete eta sinatua, gehienez ere urriaren 5ean (5a barne).

4. EPAIMAHAIARI ETA SARIEI BURUZ

4.1. Jarduketan alderdi hauek baloratuko dira:

- Koreografia gauzatzea
- Koreografiaren zailtasuna
- Koordinazioa
- Originaltasuna
- Jantziak eta estetika
- Dantzaren fideltasuna

4.2. Dantzako profesionalek osatutako epaimahaiak zuzenean aukeratuko ditu kategoria hauetako sarituak:

1. taldekako saria: 500 € + dominak + diploma

Taldekako 2. saria: 250 € + dominak + diploma

Taldekako 2. saria: 150 € + dominak + diploma

1. bakarlari saria: 75 € + domina + diploma

Bakarlari 2. saria: 50 € + domina + diploma

Bestalde, merchandising-a, elikagaiak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sormen-lanak eta abar oparituko dira.

Kategoria bakoitzeko sari hauez gain, **Publikoaren Aipamen Berezia** ere egongo da, sari opariek. **Bertan, bertaratzen direnek beren talde eta/edo bakarlari gustukoenari babesa eta esker ona adierazi ahal izango diote.** Bozkatzeko prozedura web-formulario baten bidez egingo da, horren sarbidea eskuragarri egongo da jarduerak amaitzen direnean.

- 4.3. Epaimahaiak hala iritziz gero, saria/k eman gabe utzi ahal izango dira edo Aipamen Bereziak eman ahal izango dira, bere diskrezioarekin, eta edozein parte-hartzailek jaso ahal izango du.
- 4.4. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.
- 4.5. Ekitaldia amaitutakoan, antolatzaileek harremanetan jarriko dira diru sariak jasotzeko posta elektronikoko bat bidaliz edo telefonoz.

Sarituak adingabeak badira, izapidea aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin egingo da.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. **Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.**
- 5.2. **Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi dute.**
- 5.3. **Debekatuta dago bannerrak edo edozein motatako publizitate-propaganda erabiltzea emanaldian zehar, antolatzaileen baimenik gabe.**
- 5.4. **Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar irudi-eskubidea lagatzea.** Parte-hartzaileak, beraz, lehiaketan parte hartzeko irudi-eskubideak lagatzen ditu. Lehiakideak berariaz baimena ematen dio Amorebieta-Etxanoko Udalarari irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta abar guztiak (aurrerantzean, "Irudiak") edo horien zati batzuk, lagatzaileak edo haren ordezkariak, Mangamore 2025ko Asian Dance lehiaketaren esparruan Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatua, atzemateko, argitaratzeko, erreproduzitzeko eta erabiltzeko, barneko zein kanpoko hainbat hedabidetan (egunkariak, aldizkariak, telebista-programak, web-orria, sare sozialak).

Grabatutako edukia eta lagatzailearen edo publizitate-arrazoiekin irudikatutakoaren irudiak erabiltzeko baimen hori Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan xedatutakoaren babesean ematen da.

Baimen hori ez da mugatzen denbora-eremu edo lurralde-eremu jakin batera, eta, beraz, Amorebieta-Etxanoko Udalak munduko herrialde guztietan erabili ahal izango ditu irudi horiek, edo horien zati bat, betiere izaera sozialarekin eta ez komertzialarekin, inolako muga geografikorik gabe.

Baimen hau doakoa da, eta ez dago konpentsazio ekonomikorik lagatzaileari edo haren ordezkariari. Lagatzaileak edo haren ordezkariak berariaz salbuesten du Amorebieta-Etxanoko Udala irudietako hirugarren batek egin dezakeen edozein erabileraren aurkako erantzukizunetik.

- 5.5. **Lehiaketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira,** Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago 2. eranskinean dago.**
- 5.6. **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake. Gainera, larritasunaren arabera, zigorra ezarri ahal izango da Mangamoreren etorkizuneko edizioei begira.**

HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzarik izanez gero, email bat bidali dezakezu dance@mangamore.net helbidera; ez da beste komunikazio-biderik erabiliko.



1. ERANSKINA



BAIMENA

ASIAN DANCE COVER LEHIAKETA

_____ Jaun/Andreak, adinez nagusia,
_____ NAN/AIZ/pasaporte zenbakia indarrean duenak, _____ telefono
zenbakia duenak, eta _____ helbide elektronikoa
duenak, _____ -(r)en aita, ama edo tutorea
izanik ADIERAZTEN du:

Asian Dance Cover lehiaketaren oinarriak irakurri dituela eta bere seme/alaba/apopiloari baimena ematen diola Asian Dance Cover lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketa hori urriaren 12an, igandea, 17:00etatik aurrera ospatuko da Zelaieta Zentroko frontoian, Mangamore (Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatutako japoniar kulturari buruzko jardunaldiak) 2025ko programazioaren barruan.

Era berean, berariaz baimena ematen diot Amorebieta-Etxanoko Udalari lehiaketan zehar egindako nire semea, alaba edo apopiloaren irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta abar guztiak, edo zati bat, barne zein kanpoko medioetan (egunkariak, aldizkariak, telebista-programak, web-orria, sare sozialak, etab.) jaso, argitaratu, erreproduzitu eta erabili ahal izateko. Irudi horiek ez dira inola ere erabiliko merkataritza-helburuetarako.

_____ (e)n, 2025ko _____ (a)ren _____ a.

Sinadura:

2. ERANSKINA

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Tratamenduaren arduraduna	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO IFK/CIF: P4800300H Herriko Plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Telefonoa: 946 300 650
DBO Harremanetarako	dbo-dpd@amorebieta.eus
Helburua	Udal liburutegiaren kudeaketa Haur eta gazte zerbitzuaren kudeaketa Zine eta ikuskizunen zerbitzuaren kudeaketa Musika Eskola zerbitzuaren kudeaketa Kultura eta kirol programen zerbitzuaren kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa	DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatzekoa den lege-betebeharra betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.e) Interes publikoko jardueran edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoetan jardutean burututako egitekoa betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baiezkoa (argazkiak sare sozialetan edo udalaren webgunean argitaratzeko). Kasu bakoitzean eskatzen den informazioa ahalik eta txikiena eta Udalak kudeaketa edo izapidea gauzatzeko behar-beharrezkoa duena baino ez da izango.
Pertsona/Entitate hartzaileak /Nazioarteko transferentziak	Bai aurreikusten dira norberaren datuen transferentziak. Bai aurreikusten dira datuen nazioarteko transferentziak AEBra, argazkiak sare sozialetan argitaratuz gero.
Eskubideen erabilera	Bidezkoa gertatzen denean, datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, aurka joan, edota eramagarri izateko eskatu ahaliko da, bai eta tratamendua mugatzeko, eta soilik automatizatuak diren erabakien xede ez izateko ere, pribatutasun-politikan ezarrita dagoen prozeduraren bidez gure webgunean informazio gehigarria zuzenduta (ZERBITZuenKATalogo (amorebieta-etxano.eus)).
Informazio gehigarria	Udal honek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen gaineko informazio gehigarria eskuratu ahal duzu beraren webgunean kokatuta dagoen Datuen babesaren atalean: https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/